

ISSN: 2530-6561
2024ko urria
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak. 2030 Agendaren inguruko gogoeta filosofikoa

Juan Telleria

Garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak. 2030 Agendaren inguruko gogoeta filosofikoa

Juan Telleria.
Filosofia Saila, PRAXIS ikerketa taldea eta Hegoa Institutua.
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
juan.telleria@ehu.eus

Lan hau posible izan da ondorengo dirulaguntzei esker:
Espainako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa (PID2020-114279RB-I00)
eta EHUko Ikerketaren Arloko Errektoreordetza (EHU-N23/27 eta GIU21/063).

Aurkibidea

1. Filosofia eta garapen jasangarria	8
2. Ontologia esentzialista vs ontologia erlazionala	9
2.1. Zer da ontologia?	9
2.2. Ontologia esentzialista	9
2.3. Ontologia erlazionala	10
3. Garapenaren oinarri esentzialistak eta NBEren 2030 Agenda	12
3.1. Garapena: gizakiaren potentziala gauzatzea	12
3.2. Orain gatazkatsua eta etorkizun ideala	13
3.3. Esentzialismoa, normatibitatea eta boterea	14
4. Ba al dago alternatibarik?	17
4.1. Historia lineala vs konplexutasun kontingentea	17
4.2. Gatazka: desagerrarazi edo kudeatu?	17
4.3. Boterea eta politika	19
5. Posible al da agenda global erlazional bat diseinatzea?	20
6. Bibliografia	22

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Iker Etxano
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Xabier Gainza
Amaia García
Itziar Mujika
Unai Villena
Iker Zirion

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak.
2030 Agendaren inguruko gogoeta filosofikoa

Egilea: Juan Telleria
hegoak zabalduz - 35. zk. 2024ko urria
ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eu

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91
hegoa@ehu.eu

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
hegoa@ehu.eu

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 01 42 87
hegoa@ehu.eu

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:



<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Zientzia eta feminismoak: zientziari bizitzaren iraunkortasunetik begiratzen

Laburpena: Filosofiaren jarrera erreflexiboak ekarpen interesgarriak egin ditzake garapen jasangarriaren inguruan azken hamarkadetan sortu diren debateetan. *Hegoak Zabalduz*-en ale honetan, garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak aztertzen dira eta horiek praktikan sortzen dituzten arazoak azaltzen dira. Gogoeta filosofiko honi oinarri enpirikoa emateko, zenbaki honek Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren diskurtsoa aztertzen du. Analisiak hau erakusten du: 2030 Agendak mendebaldean tradizionalki hegemonikoak izan diren kategoria eta aurreiritziak erabiltzen ditu errealitatea ulertzeko, eta horiek murriztu egiten dute NBEk arazoaren konplexutasuna ulertzeko duen gaitasuna. Murrizketa hori gainditzeko perspektiba erlazionalak duen gaitasuna ere erakusten da testuaren bukaerako zatian.

Hitz gakoak: Garapen jasangarria, Nazio Batuen Erakundea, 2030 Agenda, filosofia, esentzialismoa.

Abstract: The reflexive attitude of philosophy contributes interesting critical ideas to the sustainable development debates of the last decades. This number of *Hegoak Zabalduz* exposes the essentialist assumptions of sustainable development, and the limitations that these assumptions generate in practice. In order to give an empirical basis to such a philosophical inquiry, this text analyses the discourse of the 2030 Agenda for Sustainable Development of the United Nations. The analysis concludes that, in its approach to reality, the 2030 Agenda reproduces the most traditional and hegemonic basic categories and assumptions on the West, which reduces the ability of the United Nations to grasp the inherent complexity of the problems it aims to solve. The last part of the text reflects about the potential of relational perspectives to overcome these limitations.

Key words: Sustainable development, United Nations, 2030 Agenda, philosophy, essentialism.

1. Filosofia eta garapen jasangarria

Ez da arrunta gogoeta filosofikoa eta garapen jasangarria uztartzea. Filosofiak abstrakziorako eta orokortasunerako joera dauka eta garapen jasangarria, alderantziz, arazo oso konkretu, praktiko eta materialez aritzen da. Gainera, garapen jasangarriak konponbideak hemen eta orain eskatzen dizkigu, baina filosofiak oso astiro egiten du aurrera, eta denbora eta lasaitasuna behar izaten dira haren bide maldatsuak eta biraz beterikoak jorratzeko. Orduan, zein ekarpen egin dezake filosofiak garapen jasangarriaren inguruko debateetan?

Berez loturik dauden hainbat gauza aztertzen ditu garapen jasangarriak: pertsonen ekintzak eta ohiturak, gizarte-antolaketa politiko eta ekonomikoa, gizakien eta naturaren arteko erlazioak, kontsumo-joerak eta haien ondorioak, energia iturriak eta haien kudeaketa, etab. Eta horien inguruko galderari erantzuten saiatzen da: jasangarriak dira gure ekintzak eta ohiturak? Zelan berrantola daitezke gure erakunde ekonomiko eta politikoak gure gizarteak jasangarriak izan daitezen? Zelan kudeatu energia iturriak modu iraunkor batean? Eta abar. Filosofiak ere galdera horiek har ditzake bere gogoeta hasteko. Baina modu askoz ere erreflexiboago batean lantzen ditu. Filosofiak pauso bat ematen du atzera, distantzia apur bat jarrita perspektiba ezberdina lortze aldera. Eta, kokapen horretatik, aurreko galderen inguruko galderak egiten hasten da: zer da gizakia? Zer da natura? Zer da gizarte bat eta zer dira haren erakunde politiko eta ekonomikoa? Eta ondoren, beste pauso bat atzera emanez, galdera gehiago egiten ditu: gizakiari buruz, adibidez, zer ari naiz ontzat ematen gizakia hau edo bestea dela diodanean? Zein kategoriaren bitartez erantzun diot galdera horri? Eta, garrantzitsuago, *zelan mugatzen dute kategoria eta aurreiritzi horiek nire erantzuna?* Kapaza naiz gizakia beste kategoria batzuen bitartez pentsatzeko? Hau da, filosofiak gure pentsatzeko eta ulertzeko moduen inguruan gogoeta egiten laguntzen digu eta, garrantzitsuago dena, horiek sortzen dituzten murrizketak aurkitzeko aukera ematen digu. Eta hori ez da ekarpen txikia, askotan gertatzen baita gure aurreiritzi sakonenak direla arazo praktikoak konpontzen galarazten dituztenak.

Hain zuzen ere, hori egingo dugu *Hegoak Zabalduz*-en zenbaki honetan. Garapen jasangarriaren diskurtso garrantzitsuenek (Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarriko 2030 Agenda aintzat hartuta) errealitatea zelan ulertzen duten aztertuko dugu eta errealitatea ulertzeko modu horrek praktikan sortzen dituen arazoak eta mugak azaleratuko ditugu. Ikusiko dugunez, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) gogoeta handirik gabe onartzen dituen aurreiritzi filosofiko sakonenek trabak jartzen dituzte garapenarekin eta jasangarritasunarekin lotutako arazoak konpontzeko. Beste modu batean esanda, NBE XXI. mendeko arazoak konpontzen saiatzen da iraganeko eskema filosofiko zaharrak (oso zaharrak) baliatuta, konturatu gabe eskema zahar horiek sortu zituztela, neurri handi batean, gaurko arazoak.

Gogoeta hauek antolatzeko, testua honela egituratuta dago: lehenik eta behin, erabiliko ditugun tresna filosofikoak aurkeztuko dira. Hain zuzen, ontologia esentzialista eta ontologia erlazionala zer diren azaltzen da lehenengo atalean. Ondoren, NBEren diskurtsoak ontologia esentzialista batean oinarritzen direla ikusiko dugu eta horrek sortzen dituen hainbat arazo aipatuko dira. Gero, ontologia erlazionalak arazo globalak modu ezberdinean pentsatzeko zabaltzen duen aukera aztertuko da. Azkenik, 2030 Agendaren moduko estrategia global erlazional (ez esentzialista) bat posible ote den aztertuko dugu.

2. Ontologia esentzialista vs ontologia erlazionala

2.1. Zer da ontologia?

Ontologia hitzaren etimologia oso esanguratsua da. *Onto-* aurrizkia grekotik dator, eta izakia edota izatea esan nahi du. *-logia* atzizkia ere grekotik dator eta ezagutza, hausnarketa edo ikerketa esan nahi du. Beraz, ontologia, izatearen edo izakien inguruko ikerketa kritikoa eta ezagutza da, eta filosofiaren adar nagusietako bat da (Ferrater, 2009, 2622). Ontologiaren galdera oinarritzkoenak hauek dira: zergatik diogu gauza bat *dela* eta *existitzen dela*? Zein baldintza bete behar ditu gauza horrek *zerbait dela* eta *existitzen dela* onartu ahal izateko? Zein ezaugarri dituzte *diren* gauzak? Printzipioz, edozeinek pentsatuko luke guztiz galdera filosofikoak (abstraktuak, konplexuak, sustraietara doazenak) direla eta, horregatik, beste ezagutza mota batzuetarako (politika, ekonomia, fisika, etab.) oso beharrezkoak ez direla. Baina erreza da erakustea hori ez dela horrela. Adibidez, denok onar dezakegu harriak berez badirela eta existitzen direla. Haien izatea zuzenean ulertu eta onartzen dugu. Baina, gauza bera esan al daiteke, adibidez, justiziaz? Ba al dago justizia izeneko gauza bat? Existitzen al da? Edo justuak diren gizarteak, erakundeak eta erabakiak existitzen dira bakarrik? Erantzun bat edo bestea aukeratzea (“bai, existitzen da” edo “ez, gauza justuak bakarrik existitzen dira”) oso erabaki garrantzitsua da legegintzaren alorrean eta, era berean, erabaki politiko eta ekonomikoen esparruan. Gauza bera gertatzen da, adibidez, zenbakiekin: existitzen al dira? Ala existitzen direnak gauzak soilik dira eta zenbakiak gure abstrakzio sinbolikoak bakarrik dira? Horren inguruan sortzen diren galderak oso garrantzitsuak dira matematikaren estatus epistemologikoa ulertzeko eta, beraz, matematiketan oinarritzen diren beste zientzia askorenak ere (fisika eta ekonomia barne). Hau da, hausnarketa ontologikoa ez da interesgarria den baina ezertarako erabilgarria ez den ariketa akademikoa. Aldiz, oso oinarritzko gogoeta mota bat da. Kontua da oinarri ontologiko jakin batzuk, ohartu gabe, ontzat ematen direla gehienetan. Eta horrek arazoak sortzen ditu, oinarri ontologiko horiek ondoren datozen beste hausnarketa batzuk baldintzatu ditzaketelako, nahiz eta, esan bezala, gu konturatu ez. Izan ere, horretaz arituko gara geroago: aztertuko dugu zelan garapenaren inguruko gogoetek (oharkabean) ontzat emandako oinarri ontologikoei errealitatea ulertzeko zailtasunak eta murrizketak sortzen dituzten.

Kasu askotan, ontologia eta metafisika sinonimotzat jotzen dira, baina hori ez da zuzena. Metafisika fisikatik harago (hau da, materialtasunetik harago edo gure zentzumenek jaso dezaketen informaziotik harago) doan hausnarketa filosofikoa da. Oro har, metafisikak errealitatearen egitura oinarritzkoenak aztertzen dituela onartzen da filosofian. Ontologia eta metafisika askotan nahastu dira mendebaldeko filosofiaren historian, arazo ontologikoei modu metafisikoan erantzun zaielako. Hau da, gauzen izatea aztertzean, elementu metafisikoetan oinarritu du mendebaldeko filosofiak bere gogoeta eta, ondorioz, ontologia metafisiko baten bitartez erantzun die galdera horiei. Ikusiko dugunez, joera metafisiko horrek eragin zuzena izan du mendebaldean, garapena, historia eta gizartearen eraldaketa aztertu eta azaltzean.

Oro har, garapenaren diskurtsoaren azterketa kritikoa egiteko, bi eredu ontologiko bereiziko ditugu: bata esentzialista, mendebaldean hegemonikoa izan dena, eta bestea erlazionala.

2.2. Ontologia esentzialista

Ontologia esentzialista oinarritzko onarpen simple batekin hasten da: gauzek *esentzia* bat daukate, beren izaera ematen diena (Ferrater, 2009: 1074). Esentzia hori, orokorrean, ezaugarri edo tasun batzuk zerrendatuta deskribatzen da. Adibidez, txakur bat txakurra *da*, ezaugarri berezi batzuk dituelako: lau hanka, bi begi, ahoa, larrua, buztana, zaunka egiteko gaitasuna eta abar. Hau da, ezaugarri horiek izango ez balitu, *ez litzateke* txakurra *izango* (beharbada, azeria, katua edo txakur forma duen panpina izango litzateke, baina ez txakurra). Gauza bera gertatzen da errealitatea osatzen duen edozein


izakirekin: ordenagailuak bere ezaugarri esentzialak ditu eta horregatik ordenagailua da, eraikinak bere ezaugarriak ditu, kotxeak bere ezaugarriak ditu, eta, nola ez, gizakiak ere bere ezaugarri propioak ditu eta horregatik da (gara) gizaki. Txakurraren, ordenagailuaren eta kotxearen adibideak, beharbada, ez, baina gizakiaren kasua bereziki garrantzitsua da *Hegoak Zabalduz*-en zenbaki honetan, garapenari buruzko diskurtsoak gizakiaz aritzen direlako.

Historikoki, mendebaldean onartu egin da gizakiak badituela ezaugarri berezi batzuk, gizaki izateko esentzialak direnak (Arrieta & Uribarri, 2008; Kenny, 2010; Copleston, 2011). Tradizionalki, Europan, Erdi Aroan arte, esentzia hori arimarekin lotzen zen: arimadun izakiak gizakiak zirela onartzen zen. Aro Modernoa heltzean, gizakiaren inguruko esentzialismoa mantendu zen, baina beste termino batzuk erabilita, gaur egunera arte mantendu direnak. Hala, azkenengo mendeetan, gizakiaren esentzia arrazionaltasunaren, askatasunaren, duintasunaren edota eskubideen bitartez deskribatu izan da. Arrazionaltasunak, adibidez, animaliangandik bereizten gaitu: gu arrazionalak gara eta haiek ez (edo ez gu bezainbeste, edo ez guk arrazionaltasuna definitzen dugun modu berean). Halaber, duintasuna, askatasuna eta eskubideak errespetatzen ez diren testuinguruei "gizagabe" esaten diegu: horietan, gizakiaren esentzia errespetatzen ez delako. Arima alde batera uztea eta arrazionaltasuna-askatasuna-duintasuna-eskubideak erabiltzea gizakiaren esentzia definitzeko elizaren eta erlijioaren boterearen aurkako erantzun bat dela uler daiteke, azkenengo mendeetan gauzatutakoa. Edozein kasutan, perspektiba esentzialistaren bi ezaugarri erakusten duten moduan, Erdi Aroko eskema bera mantendu zen gizakiaren hausnarketa ontologikoari dagokionez. Lehenengo ezaugarria unibertsaltasuna da: bai Erdi Aroan bai Aro Modernoan ontzat eman da gizakiaren esentziak unibertsala izan behar duela. Hau da, gizaki diren izaki guztiek esentzia komun bera daukatela. Bigarren ezaugarria indibidualismoa da: gizakiaren esentzia gizabanakoan dago. Hau da, gizaki egiten gaituzten ezaugarriek banakoengan hartzen dute forma: arrazionaltasuna pertsona bakoitzaren gaitasun bat da; eskubideak, askatasuna eta duintasuna erakunde kolektiboek bermatzen dituzte, baina gizabanakoengan gauzatzen dira. Edo horrela ulertu ohi da mendebaldeko ideologia hegemonikoetan.

Askorentzat, gizakiari buruzko begirada esentzialista hori zentzuzkoa da eta ez dago zertan kritikoki aztertu. Hogeita bost mendean (Sokrates, Platon eta Aristotelesen garaitik) gure kulturaren oinarritzko onarpen bat izan denez, askok (gehienez) ez dute esentzialismo hori antzematen eta, are garrantzitsuago, gure mundua ulertzeko eta antolatzeko gaitasunean sortzen dituen mugak eta gabeziak ez dituzte ikusten. Zenbaki honetan, esentzialismo horri bestela begiratuko diogu, gure ikuspegiaren duen eragina ulertu eta aldatu ahal izateko.

2.3. Ontologia erlazionala

Ontologia erlazionala ez da gauzen esentzian zentratzen, baizik eta *gauzak sortzen dituzten erlazioetan* (Ferrater, 2009: 3176). Adibide baten bitartez azalduko dut ontologia erlazionalaren zentzua.



Eskola-liburu askotan, gizakia zer den azaltzean, azpiko irudian agertzen den eskemaren moduko bat erabiltzen da. Eta, orokorrean, ondoren azalpen bat dator: "*Gizakia animalia ugaztun arrazionala da, bi beso eta bi hanka ditu...*". Azalpen horretan gizakiaren ezaugarri esentzialak aipatzen dira, gizakia aurkezteko modu hori guztiz esentzialista baita. Ikuspegi ontologiko erlazional batetik, gizakia zer den azaltzeko modu hori ez da zuzena. Ikuspegi erlazional batetik, *izaki horiek ez direla existitzen* eta ezin direla existitu esango genuke, gizaki bat izateko beharrezkoak diren erlazioak ez dituelako kontuan hartzen. Adibidez, bizitzeko, gizakiok oxigenoa behar dugu, eta hori gizakiak atmosferarekin duen erlazioa da. Bizitzeko, ura behar dugu, eta hori ingurunearekin sortzen den erlazio bat da. Garatzeko, elikagaiak behar ditugu, eta hori ingurunearekiko beste erlazio bat da. Gure beharrak asetzeko (elikagaiak ekoiztu, etxeak eraiki, segurtasuna bilatu, zoriontasuna bilatu, etab.), beste gizaki

batzuekin antolatu behar dugu, eta horiek ere erlazioak dira. Eta, beste gizakiekin erlazionatzeko, hizkuntza eta kultura komunak behar ditugu, eta horiek ere historiarekin eta iraganarekin kontaktuan jartzen gaituzten erlazioak dira. Azkenik, bizirauteko ugalduekin behar dugu (bestela, gizakia belaunaldi batean desagertuko zen), eta horretarako ere erlazioak beharrezkoak dira. Hau da, ontologia erlazional baten ikuspegitik hau ondorioztatuko genuke: gizakia ez da gizakia hainbat oinarriko ezaugarri dituelako; aitzitik, *gizakia hainbat erlazioen bitartez osatzen den izakia da*. Erlazioek egiten gaituzte gizaki, ez balizko ezaugarri esentzial batzuek. Horregatik, ontologia erlazional baten ikuspegitik, irudian agertzen diren bi izaki horiek teorizazio esentzialista baten ondorio birtualak dira, ez benetako munduan existitzen diren gizakiak.

Gorago aipatu bezala, ontologia esentzialistak gizabanakoan jartzen du arreta, gizabanakoan aurkitzen baitira gizaki egiten gaituzten ezaugarri esentzialak. Horregatik, teorizazio esentzialista (politiko, sozial eta ekonomiko) gehien ardatza indibidua da. Ontologia erlazional batean gizabanakoak existitzen direla onartzen da, noski. Baina indibidua ez dira teorizazioen ardatz bakarra. Azken finean, gizabanakoa erlazionala, dimentsioaniztuna eta konplexua den sare batean bakarrik existitu daitekeelako. Beraz, ontologia erlazional baten ikuspegitik, sarea (erlazioez osatutako egitura) gizabanakoa bezain garrantzitsua da errealitatea ulertu eta azaltzeko.

Aurrera jarraitu aurretik, bereizketa teoriko bat egitea komeni da. Kasu askotan, ontologia erlazionala sistemen teoriarekin identifikatzen da, baina hori ez da zuzena. Bai sistemen teoria bai ontologia erlazionala erlazioetan zentratzen dira: bien kasuan, elementuen arteko erlazioa klabea da. Baina badago ezberdintasun garrantzitsu bat. Sistemen teorian, elementuak sisteman sartu aurretik izaera (identitate, izate) bat daukate. Aldiz, ontologia erlazionalean hori ez da horrela. Adibide baten bitartez uler daiteke ezberdintasun hori. Demagun sistema ekonomiko simple bat, non ekoizleak, saltzaileak, erosleak, erakunde publikoak, etab. elkarren artean erlazionatzen diren. Sistemen teorian, elementu horietako bakoitzak bere izaera dauka: adibidez, ekoizleak ekoizten dutenak dira eta beren ekoizpena saltzen dutenean sistemaren parte dira. Ontologia erlazional baten ikuspegitik, oster, hau esango genuke: pertsona horiek ekoizleak dira soilik besteekin erlazionatzen diren aldetik (beren ekoizpena salduz). Hau da, besteekin erlazionatzen ez direnean, haien izaera desagertu egiten da, eta ekoizleak izateari uzten diote. Hau da, erlazioen egituratik at, 'ekoizle' izaerarik ez daukate.

Ñabardura hori garrantzi gabeko huskeria dela pentsa daiteke, baina ez da horrela. Gorago esan bezala, ontologia erlazional batean, izaera ez du esentzia batek ematen. Aitzitik, erlazioek eratzen dute izaera. 'Ekoizleak' egituratik kanpo ere ekoizleak direla onartzen badugu, ekoizle izatearen esentzia bat badagoela inplizituki onartzen dugu: pertsona horiek esentzia hori daukate (ezagutza edo abilezia bat dutelako, adibidez) eta horregatik *dira* ekoizleak. Aldiz, izaera erlazioek ematen dutela onartzen badugu, 'ekoizle' izatea egituraren barnean bakarrik eman daiteke, erlazioen bitartez. Bestela, egituratik at, pertsona horiek gurasoak, lagunak, musikazaleak edo txirrindulariak izan daitezke, esaterako, beste hainbat egituraren barnean. Baina ez ekoizleak. Hau da, perspektiba erlazional baten ikuspegitik, egiturak ematen die elementuei beren izatea, eta ez alderantziz. Ñabardura hori ondo ulertuta eta barneratuta, ontologia erlazionalaren zentzua hobeto ulertzen da eta, beraz, hurrengo ataletan datozen azalpenak ulertzea errazagoa da.

3. Garapenaren oinarri esentzialistak eta NBEren 2030 Agenda

Zergatik da garrantzitsua ontologia esentzialista eta erlazionala bereiztea? Zer lotura daukate garapenaren teoria eta praktikekin? Oro har, hiru arrazoiengatik da garrantzitsua ontologia eta garapena elkarrekin lantzea. Lehenik eta behin, garapenaren kontzeptua ontologia esentzialista batean oinarritzen delako. Bigarrenik, ontologia esentzialista horrek oraina ulertzeko eta etorkizuna irudikatze gure gaitasuna murrizten duelako. Azkenik, ontologia esentzialista horrek marko normatibo inplizitu bat inposatzen duelako.

Atal honetan hiru arrazoi horiek azaltzen dira. Azalpen teoriko hauen euskarri enpiriko gisa, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendatik hartutako adibideak erabiliko dira.

3.1. Garapena: gizakiaren potentziala gauzatzea

Esan bezala, garapenaren teoria ontologia esentzialista batean oinarritzen da. Ikusiko dugunez, ontologia horrek zentzua ematen dio garapenaren teoriari, baina, aldi berean, asko murrizten du teoria horrek errealitatea ulertzeko eta aldatzeko duen gaitasuna. Nolabait esanda, errealitatea ikusi ahal izateko beharrezko betaurrekoak dira ontologia esentzialista, baina betaurreko horiek errealitatea partzialki eta modu mugatuan erakusten dute.

Aurreko atalean esan bezala, mendebaldean gizakia modu esentzialista batean ulertua izan da eta, ondorioz, gizakiaren inguruko teoriak modu esentzialista batean eraiki ohi dira. Garapenaren teoria kasu horietako bat da. Mendebaldean, orokorrean, garapena *gizakiaren esentzia bere maximora eramaten zuen prozesua* zela onartu izan da. Hau da, ikuspegi horren arabera, gizaki egiten gaituena (hots, esentzia, dena delakoa) ahalik eta gehien hedatzean, zabaltzean edota gauzatzean datza garapena. Horrela, ikuspegi esentzialista horri jarraikiz, guztiz gizaki egiten gaituen prozesua da garapena. Prozesu horri hainbat izen eman zaizkio mendebaldeko historian (Reale & Antiseri, 2001). Erdi Aroan, gizakiaren esentzia arima zela pentsatzen zenean, "salbazioa" zen gure esentzia bere maximora eramaten zuen prozesua. XVII. eta XVIII. mendetan, gure esentzia arrazionaltasunarekin, askatasunarekin, eskubideekin eta duintasunarekin lotzen hasi zenean, "aurrerapena" deitu zioten prozesu horri. XIX. mendean eta XX. mendeko hasieran, teoria eboluzionisten eraginez, "eboluzioa" hitza erabili zuten. Eta, azkenik, XX. mendeko bigarren erditik gaur arte, "garapena" deitzen diogu bilakaera horri.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, garapenerako estrategiak eta planak diseinatzen hasi zirenean, garapena herrialdeen egoera ekonomiko, politiko eta sozialarekin lotu zen. Zera argudiatzen zen: herrialdeen egitura ekonomiko, politiko eta sozialak modernoak baldin badira, gizakiaren esentzia guztiz gauzatzeko baldintzak daude. 1970 eta 1980ko hamarkadetan egiaztatu zen herrialdeen modernizazioak ez zuela berez gizakiaren esentziaren garapena ziurtatzen. Horregatik, 1990an, garapena ulertzeko beste modu bat proposatu zuen Nazio Batuen Garapenerako Programak (ingelesez, UNDP, eta gaztelaniaz, PNUD), giza garapena delakoa. Kasu horretan ere, herrialdeen egoera kontuan izatea garrantzitsua zen, baina, oso modu esplizitu batean, garapena gizakiaren esentziarekin lotu zen: gizakien esentzia gauzak egiteko eta izateko gaitasuna zela iritzita (UNDP, 1990: 9-16), giza garapenak banakoen gaitasunen handitzea eta gauzatzea izan beharko zuela proposatu zen.

Geroztik, garapena eredu esentzialista honen bitartez ulertu izan da: garapena herrialdearen modernizazioa da baldin eta *banakoen potentziala gauzatzen* laguntzen badu. Horren adibideak NBEren 2030 Agenda da. Nahiz eta gizakiaren inguruan hausnarketa antropologiko edota filosofiko egiteko testu akademiko bat ez izan, 2030 Agendan gizakiaren kontzeptualizazio esentzialistaren oinarriak aurkitu daitezke. Adibidez, estrategia global horren helburu orokorra mundua eraldatzea da 'giza potentzial guztia' gauzatu ahal izateko (20. eta 50. puntuetan, adibidez): hau da, gizaki

egiten gaituzten elementu oinarrizko eta esentzialenen gauzatzea unibertsalki bermatu ahal izateko (giza eskubideak, duintasuna eta askatasuna, adibidez). Hori lortze aldera, NBEk herrialde guztietan 2030 Agenda ezartzea proposatzen du (Hitzaurrean eta 5. puntuan, adibidez). Gorago esan bezala, 2030 Agendak erakusten du ontologia esentzialistak ezartzen duela garapenaren oinarri filosofiko funtsezkoena (nahiz eta modu inplizituan izan): garapena gizakiak bere esentzia guztiz burutzeko duen potentziala gauzatzea dela onartzen da.

3.2. Orain gatazkatsua eta etorkizun ideala

Garapenaren hausnarketa ontologikoa egiteko beharraren bigarren arrazoia hau da: ontologia esentzialistak etorkizunari buruzko gogoeta egiteko gure gaitasuna murrizten du. Horrek garrantzi handia du garapenaren inguruko debateetan; azken finean, debate horiek etorkizunean nahiko genukeen gizarteaz egiten baitute gogoeta: zelako etorkizuna nahi dugu? Zein gizarte mota eraiki nahi dugu etorkizunerako? Zelan sortu gizarte hori?

Murrizketa horren zergatia honako hau da: ikuspegi esentzialistak onartzen du, esan bezala, badagoela gizakiaren esentzia unibertsal bat. Hori horrela baldin bada, esentzia unibertsal hori guztiz gauzatzen laguntzen duten erakunde eta egitura sozial, politiko eta ekonomikoak existitzen direla (edo existi daitezkeela) pentsa daiteke. Arrazoiketa horrek ondorioztatzen du erakunde eta egitura horiek martxan jarriko balira, pertsona guztien esentzia garatzeko aukera erreala egongo litzatekeela. Balizko gizarte horretan, gizakiaren esentzia mehatxatzen edo murrizten duten arazoak eta gatazkak desagertuko lirateke eta guztiz baketsua, orekatua eta berdinzalea izango litzatekeen elkarbizitza lortuko litzateke, pertsona guztien gizatasuna bermatuko lukeena.

Horrela azalduta, logika hori sinpleegia dela pentsa dezakegu. Ostera, hori da mendebaldeko ideologia garrantzitsu eta boteretsuenek (kristautasunak, liberalismoak, kapitalismoak eta komunismoak, adibidez) erabili duten arrazoibidea. Kasu guztietan, esentzia bat definitzen da (arima, askatasuna, arrazionaltasuna, lan egiteko gaitasuna, edo dena delakoa) eta esentzia horri egokitutako egitura sozial, politiko eta ekonomikoak proposatzen dira. Kasu guztietan, egitura horien bitartez etorkizun oparo eta baketsua sortzeko aukera ikusten da. Kasu guztietan, egitura horiek unibertsalak izan beharko luketela defendatzen da. Eta kasu guztietan, horrek historiaren ikuspegi teleologiko bat bultzatu du, non formula zehatz batek (berriro: kristautasuna, liberalismoa, kapitalismoa edo komunismoa) historiaren behin betiko aro zorientsu batera eramango gaituen. Oro har, logika esentzialista honek denbora politiko eta soziala ulertzeko modu zehatz bat inposatzen du inplizituki: *oraina* desagokia da eta ez du gizakiaren potentzialaren gauzatzea ahalbidetzen; aldiz, aldaketa aproposak eginez gero, *etorkizunean* potentzialtasun hori gauzatu ahal izango da. Bide hori egiteko, estrategia bat behar da, eraldaketa gauzatu ahal izateko. Esan bezala, etorkizun desiragarri horretara eramango gaituen estrategia 2030 Agenda da, NBEren arabera.

Oso deigarria da 2030 Agendaren orainaren eta etorkizunaren deskribapena: lehena gatazkatsua eta arazoz beterikoa da; bigarrena, aldiz, ideala eta guztiz desiragarria. 14. puntuan, Agendak orainaren deskribapena egiten du:

Milaka miloi herritarrek jarraitzen dute pobrezian bizitzen, bizitza duinaz gabetuta. Gero eta gehiago dira desberdintasunak, bai herrialdeen barruan bai horien artean. Desberdintasun handiak daude aukerei, aberastasunari eta botereari dagokienez. (...) Osasunerako mundu mailako arriskuek, natura-hondamendiak gero eta sarriago eta intentsitate gehiagoz gertatzeak, gatazka-kopuruaren igoerak, estremismo indartsuak, terrorismoak eta ondoriozko krisi humanitarioek eta herritarren nahitaezko lekualdatzeek kolokan jartzen dituzte azken hamarkadetan lortutako garapen-arloko aurrerakuntza asko. Natura-baliabideak agortzeak eta ingurumenaren narriaduraren efektu negatiboek, desertifikazioak,

lehortek, lurraren narriadurak, ur gozoaren eskasiak eta biodibertsitatearen galerak gora egin dute eta gizateriak aurrez aurre dituen zailtasunak larriagotzen dituzte. (...) Arriskuan dago sozietate askoren biziraupena, bai eta planetaren euskarri biologikoaren sistemena ere (NBE, 2015: 14. puntua)

Aipatu arazo horiek gizakiaren esentzia gauzatzea galarazten dute: pertsonen duintasuna, eskubideak, segurtasuna eta askatasuna mehatxatuta daude. Bestalde, 17 GJHak erdietsiz gero, agendak etorkizun oso ezberdina aurreikusten du. Etorkizun hori agendaren 7., 8. eta 9. puntuetan deskribatzen da: pobreziarik, goserik, gaixotasun eta pribaziorik gabeko mundua, non bizimodu guztiek aurrera egin dezaket; izurik eta indarkeriarik gabeko mundua, non ongizate fisikoa, mentala eta soziala bermatuta dauden; giza eskubideen errespetua eta pertsonen duintasuna, zuzenbide-estatua, justizia, berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzen duen mundua; tolerantia, irekia eta sozialki inklusiboa den mundua, non ahulenen beharrei erantzuten zaien; eta hazkunde ekonomikoa, inklusiboa eta jasangarria eta guztiontzako lan duina duen mundua (NBE, 2015:). Beste modu batean esanda, NBEren iritziz, 17 helburuak erdiestean gizakiaren esentzia guztiz gauzatuko litzateke, edo behintzat guztiz gauzatzeko aukera izango genuke.

Esan beharrik ez dago mundu ideal hori guztiok desiratzen dugula. Baina, ba al da ikuspegi errealista bat? Edo ontologia esentzialistak sortutako itxurazko ilusio bat da, gure aldaketarako esfortzuak bide desegoki eta antzu batetik bideratzen dituen? Aurrerago helduko diogu galdera horri.

3.3. Esentzialismoa, normatibitatea eta boterea

Ontologia eta garapena uztartzeko hirugarren arrazoia bigarrenetik eratorria da. Behin etorkizun ideal bat zehaztuta, dimentsio normatiboa (ona/txarra eta bidezkoa/bidegabea zer den zehazten duena) inplizituki erabakita gelditzen delako. Arrazoibidea sinplea da. Etorkizun ideal horretara gerturazten gaituena, orokorrean, on eta bidezkotzat joko da. Aldiz, etorkizun horretatik urruntzen gaituena (edo etorkizun horretara gerturatzeko bidea oztopatzen diguna) orokorrean txarra eta bidegabea dela defendatuko da. Beste modu batean esanda, ona eta zuzena izango da gizakiaren esentzia gauzatzen laguntzen duena eta txarra eta bidegabea hori eragozten duena. Beraz, ontologia esentzialista baten barnean, esentziak ezaugarritzen du normatibitatea, lehena zehaztuta bigarrena ere zehaztuta gelditzen baita.

Esentzialismoak normatibitatearekin duen lotura zuzen horregatik, mendebaldeko historian boteredun izan diren talde garrantzitsuenak ontologia esentzialista batean oinarritu zituzte beren munduaren ikuspegia, politika, ekonomia eta gizartearen antolaketa. Greziarrek, erromatarrek, Erromako elizak eta burgesiak ontologia esentzialista baten gainean eraiki zituzte beren ordena eta botere-egiturak. Erabilitako logika antzerakoa izan da kasu guztietan: 1) guk badakigu zer den gizakia (eta beraz, haren esentzia), 2) guk badakigu gizatasun hori guztiz nola garatu, eta, horregatik, 3) gure erakunde ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak onenak dira mundu hobea eraikitzeko, etorkizun idealera gerturatuko gaituena. Are gehiago, mendebaldean gizakiaren esentzia unibertsala dela onartu izan ohi denez, talde horiek beren ikuspegia eta erakundeak mundu osora zabaltzea bultzatu dute sistematikoki.

Hau da, ontologia esentzialista hegemoniko bihurtu da mundu osoan, talde eta egitura boteretsuendako oso erabilgarria izan ohi delako. Hiru arrazoi aipatu daitezke ildo horretan. Lehenik eta behin, botere-egituren *zilegitasuna* oinarritzeko oso egokia dela: gorago esan bezala, boteredunek esentzia ondo ezagutzen dutela diote eta horrek beren egitura politiko, ekonomiko eta sozialei zilegitasuna ematen die. Bigarrenik, esentzialismoaren bitartez, *muga politiko eta kultural sinbolikoak* marraztu izan direla. Horrela, 'gu' sinboliko bat eraiki izan da esentziaren inguruan ados gaudenen artean, eta 'haiek/besteak' sinboliko bat esentziaren inguruan beste ikuspegi bat dutenak batuz. Muga horiek

boterea kudeatzeko erabili izan dira, boteredunek 'gure' interesen alde lan egiten dutela esanez eta, aldi berean, 'besteen' mehatxutik defendatzen gaituztela argudiatuz. Azkenik, boterearen *kudeaketa praktikoa* asko errazten dela. Perspektiba esentzialistak onartzen du gizakiaren esentziaren inguruko benetako ezagutza bat badagoela eta, beraz, ezagutza horren bitartez adituak treba daitezkeela mundua eraldatzeko behar diren praktikak (estrategiak, proiektuak, planak) diseinatu eta gauzatu ahal izateko. Aditu askoren iritziz, hiru botere-elementu horiek (zilegitasuna bilatzea, muga sinbolikoak eraikitzea eta kudeaketa praktikoa ahalbidetzea) modu oso esplizituan atzeman daitezke garapenaren logika, teoria eta praktiketan, eta, beraz, NBEren 2030 Agendan ere bai.

Estevak eta Escobarrek, adibidez, azaltzen dute 'garapenaren aroa' 1949ko urtarrilaren 20an hasi zela, Estatu Batuetako Presidente berriak, Harry Trumanek, munduaren zati handi bat 'azpigaratu' adjektiboa erabiliz deskribatu zuenean (Escobar, 1995, Esteva, 2010). Ordura arte, garai inperialistatik zetozen kolonizatzaile/kolonizatu kontzeptuen bitartez ulertzen eta deskribatzen zen nazioarteko eszenatokia. Trumanen hitzen ondoren, garatu/azpigaratu kontzeptuen bitartez deskribatzen hasi zen. Berehala, NBE sortu berriak logika hori bereganatu zuen eta, hortik gutxira, garapenerako estrategiak eta planak diseinatu eta martxan jartzen hasi zen.

Trumanen hitzak ez ziren batere maleziagabeak: Bigarren Mundu Gerraren ondoren, AEBk bazekien munduko herrialde boteretsuena zela, eta egoera berri horri egokitutako diskurtso berri bat sortzeko beharra igarri zuten agintari estatubatuarrek (Sach, 2010: xviii). Garapenaren diskurtsoaren bitartez, AEBk eta mendebaldeko haren aliatuek *logika identitario berri bat* jarri zuten martxan, non herrialde garatuek 'gu' sinboliko bat osatzen zuten eta beste herrialde guztiek (nahiz eta askotarikoak eta ezberdinak izan) 'beste' talde sinboliko batean bilduak izan ziren, 'azpigaratu' etiketarekin. Diskurtso horren bitartez, herrialde eta gizarte garatuak ('gu') arrakasta ekonomikoarekin, ongizatearekin, bakearekin, egonkortasunarekin, ezagutzazientifikoarekin, teknologia aurreratuekin, modernitatearekin, etab. erlazionatu ziren. Herrialde azpigaratuak ('besteak'), berriz, aurkako ezaugarriekin lotu ziren diskurtso horretan: arazo ekonomikoekin, ongizate faltarekin, gatazkarekin, sineskeriekin, jarrera atzerakoiekin, etab. Beste modu batean esanda, 'gu' sinbolikoa gizakiaren esentziarekin eta esentzia hori gauzatzearekin lotu zen eta 'besteak' esentzia hori gauzatzearen aurkakoarekin. Horrela, garatuen ikuspegiak eta erakundeek unibertsalak izan behar zutela inplizituki proposatzen zen, azken finean ikuspegi eta erakunde horiek gizakiaren esentzia guztiz garatzeko modua ematen zutelako. Beste modu batean esanda, diskurtso berriak garatuen ikuspegiak, egiteko moduen eta erakundeak *zilegitasuna* sendotzen zuen, etorkizun idealaren erreferente bihurtzen zirelako. Azkenik, diskurtso berriak, eraldaketa soziala eta ekonomikoaren *teknifikazioa* ekarri zuen. Herrialde garatuek hazkunde ekonomikoa jarri zuten diskurtsoaren erdian, hazkundeak modernitatea, egonkortasuna, ongizatea eta bakea ekarriko zuelakoan. Eta hazkundearen inguruan ezagutza tekniko eta ekonomiko zabala sortu zen, indizeak, praktika egokiak eta helburuak zehaztu ahal izateko. Geroztik, gizakiaren esentzia gauzatzea (garapena) arazo tekniko bat bihurtu zen, eta teknikari teknokraten eskuetan gelditu zen etorkizun ideala erdiesteko gaitasuna eta ardura.

Nahiz eta NBEren 2030 Agenda 1940ko hamarkadaren bukaeran sortutako garapenaren logikaren bertsio oso gaurkotua izan, haren dimentsio esentzialista-unibertsalista oso nabarmena da. Lehenik eta behin, agendak eraldaketa ekonomiko, politiko eta sozialaren ikuspegi teknokratikoa eta modernizatzailea errepikatu eta mantentzen du: helburu kuantitatiboak eta indizeak proposatzen ditu arazo konplexuak, eta, hein handi batean, politikoak konpontzeko; eta hazkundea jartzen du diskurtsoaren erdian, 8. helburuak garapen jasangarria hazkunde ekonomikoaren bitartez soilik lor daitezkeela esaten baitu. Bigarrenik, eta aurrekoari jarraikiz, agendak ez du herrialde garatuek Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako egitura ekonomiko eta politikoa aztertzen edo kritikatzeko, nahiz eta egitura hori agendak konpondu nahi dituen arazo gehien zergatia izan neurri handi batean (Telleria, 2018, 2022). Kritika falta horrek erakunde eta logika horien zilegitasuna sendotzen du, agendaren mezu inplizituak zera esaten baitu: giza esentzia guztiz gauzatuko duen etorkizun idealari forma emateko, egungo egitura ekonomiko eta politikoak baliagarriak dira. Azkenik, Agendak behin eta berriro errepikatzen du egitura horiek (eta egitura horien oinarrian dauden printzipio, erakunde eta egiteko moduak) unibertsalak izan beharko luketela, etorkizun ideala erdieste aldera. Oso esanguratsua da, ildo horretan, 2030 Agendak

36. puntuan egiten duela dibertsitateari buruzko lehenengo aipamen esanguratsua eta, gainera, aipamen horretan dibertsitatea esplizituki unibertsaltasunaren menpe jartzen duela. Beste modu batean esanda, Agendak 'gu' sinbolikoaren ordena unibertsala izan behar duela deritzo, 'besteen' dibertsitatearen gaintik. Horrela, 2030 Agendak gu/besteak bereizketa sinbolikoa mantentzen du, Mendebaldeak sortu duen ordenaren zilegitasuna sendotzen du eta eraldaketaren perspektiba teknokratikoa errepikatzen du.

4. Ba al dago alternatibarik?

Perspektiba esentzialistari alternatibak bilatzea ez da batere erreza. Hogeita bost mendez, ontologia esentzialista izan da munduari begiratu eta hura ulertzeko mendebaldean erabili izan den perspektiba. Korrante kultural, erlijioso, politiko eta ekonomiko garrantzitsuenak ontologia horretan oinarritu dira. Gure erakunde sozial, ekonomiko eta politikoak onarpen esentzialistetan oinarritzen dira. Eta, honen ondorioz, esentzialismoa gure buruetan sakon sustraitua dagoen logika bat da. Hala ere, zenbaki honen hasieran laburki azaldu den ontologia erlazionalak alternatibak bilatzen lagundu diezaguke. Atal honetan, ontologia erlazionalak ahalbidetzen dituen errealitatea ulertzeko beste modu batzuk aztertuko ditugu, garapenaren inguruko ekarpen kritikoak egite aldera. Hiru gairen inguruan arituko gara: historia, gatazka eta boterea.

4.1. Historia lineala vs konplexutasun kontingentea

Ontologia esentzialistak historiaren eta eraldaketa politiko, ekonomiko eta sozialaren ikuspegi lineala inposatzen du. Azken finean, esentzialismoak ontzat ematen du historiaren zentzua esentzia guztiz garatzea dela, eta horretarako, bide (lineal) bati jarraitu behar zaio, eta bide horrek jomuga idealera eramango gaitu. Horren adibide dira azken mendeetan mendebaldean sortu eta hegemoniko bihurtu diren historiaren kontzeptualizazio teleologikoak (e. g., XVIII. mendean 'aurrerapen' kontzeptuak hartu zuen garrantzia, XIX. eta XX. mendeetako eboluzionismoa, eta XX. mendearen bigarren zatian eta XXI. aren hasieran garapenak izandako garrantzia).

Ikuspegi lineal horietan denbora ulertzeko joera hau da: *iragana* tradizioarekin, arazo politiko, ekonomiko eta sozialekin eta giza esentziaren garapenik ezarekin lotzen da; aldiz, *etorkizuna* positiboki baloratzen da eta proiektu politiko, ekonomiko eta sozial guztien lorpenarekin lotzen da. Horren adibidea 2030 Agenda da, 3.2 azpiatalean azaldu den moduan.

Ontologia erlazionalak gure kulturen hain sustraituta dagoen linealtasun hori ukatzen dute. 2.3 azpiatalean azaldu den moduan, ontologia erlazionalak honako hau defendatzen du: gure gizatasuna erlazio askoren bitartez eraikitzen da (gizakien artekoak, objektuekikoak, naturarekikoak, etab.). Horregatik, gizaki izateko modu asko daudela aldarrikatzen du. Edo, beste modu batean esanda, gure izateko modua ez da esentziala, baizik eta kontingentea (faktore askoren menpe dagoena).

Ikuspegi alternatibo horren arabera, historia eta aldaketa soziala ez dira linealak, baizik eta erlazio eta egitura askoren menpe dagoen bilakaera konplexu eta kontingentea. Historia ez da osotasun batera garamatzen bide zuzena (edo nahasia). Historia erlazio eta egitura askoren aldaketa besterik ez da: gizarteari eta gizatasunari forma emateko hainbat moduren sekuentzia. Horrela, iraganak ez dauka konnotazio negatiborik (tradizioa, modernitate falta, efizientziarik eza) eta etorkizunak ez du idealizazio baten bitartez zentzua hartzen. Aitzitik, arreta orainera ekartzen du ontologia erlazionalak: gure izatea orain ezaugarritzen duten erlazio eta egituretara. Zein erlaziok ezaugarritzen dute gure gizaki izateko modua? Zer-nolakoak dira erlazio horiek? Zelan ematen diote forma gure gizarteari, gure sistema ekonomikoari eta gure erakunde politikoei? Zein arazo sortzen dituzte? Zelan kudeatu eta gainditu arazo horiek? Galdera horiek guztiek hurrengo azpiatalera garamatzate, gatazkaz hausnartzen duen azpiatalera.

4.2. Gatazka: desagerrarazi edo kudeatu?

Gorago azaldu den moduan (3.2 azpiatala), ontologia esentzialistak gatazkarik gabeko etorkizuna aurreikusten du, non gizakiaren esentzia guztiz gauzatzen den. Baina, zer da gatazka? Oro har, esentzialismoak honela definitzen du gatazka: gizakiaren esentzia eta haren garapena eragozten

duen edozein gauza, ideia, jarrera edo egitura gatazkatsua da. Horrela, etorkizun ideala lortze aldera, elementu horiek guztiak desagerrarazi behar dira. Arrazoiketa horrek arazo larri bat sortzen du. Giza esentzia unibertsala dela onartzen denez, unibertsaltasunaren aurkakoak diren elementuak potentzialki arriskutsutzat jotzen dira. Hau da, pluraltasuna eta aniztasuna potentzialki gatazkatsuak direla aurreikusten du esentzialismoak; beraz, alde batera uzten ditu.

Aniztasuna eta pluraltasuna baztertzearen harira, badaukagu Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) eta 2030 Agenda lotzen dituen gertaera oso esanguratsua. 2019an, EHUk EHUagenda 2030 dokumentua kaleratu zuen. Bertan, unibertsitateak 2019-2025 eperako ibilbide-orri bat proposatzen du, "GJHetan unibertsitatearen lana planetaren eta pertsonen erronka handiekin lerrokatzeko, 'inor bazter utzi gabe'¹". Horretarako, EHUk, 2030 Agendak zehaztutako 12 helburu bere egiten ditu eta unibertsitatearen esfortzuak horiek betetzera bideratzen ditu. Osera, NBERen dokumentua sostengatzen duen perspektiba esentzialistak arazo bat sortu zuen. Aipatu bezala, 2030 Agendak ez dio aniztasunari eta dibertsitateari garrantzirik ematen. Baina aniztasuna eta dibertsitatea EHUren ardura nagusietakoa dira, euskararen eta euskal kulturaren garapena eta gaikuntza eleaniztuna unibertsitatearen erronka nagusietako bat denez gero. Oso esanguratsua da EHUagenda 2030 estrategia diseinatu zuten EHUko kideek ez zutela aurkitu euskararen aldeko lanarekin lotuta egon zitekeen GJHrik eta, ondorioz, GJH estraofizial berri bat asmatu behar izan zutela: 17+1 helburua, "Hizkuntza eta kultur aniztasuna" izenekoa². 17+1 helburuarena ez da gertaera kurioso eta anekdotiko bat. Aldiz, 2030 Agendaren izaera esentzialistak sortzen dituen arazoetako baten adibide garrantzitsua da. Agendak irudikatzen duen etorkizun idealean, hizkuntza-aniztasuna ez da garrantzitsua. Hizkuntzak –aniztasunaren ikur– behin bakarrik aipatzen dira 2030 Agendan (esaldi luze baten erdian) eta ez zaie inolako arretarik jartzen. Gertaera horrek erakusten diguna zera da: EHU gonbidatua dela 2030 Agendan parte hartzera, balizko jakintza unibertsal bat sortu eta zabaltzeko gai den aldetik, ez tokiko berezitasunei garatzeko bidea ematen dien aldetik. Paradoxikoki, gorago aipatu bezala, 2030 Agenda aplikatzerakoan, EHUk ez du nahi inor bazterrean uztea, baina perspektiba esentzialistaren ondorioz baztertua geratzen direnak euskera eta EHU bera dira.

Ikuspegi erlazionalak pluraltasuna, aniztasuna eta gatazka modu oso ezberdinean ulertzeko aukera ematen du. Gorago esan bezala, ikuspegi erlazionalak onartzen du gizaki izateko modu ezberdinak daudela, eta beraz, gizakiak berez, naturalki, askotarikoak direla. Horregatik, gizartearen interes ezberdinak dituzten taldeez osatuta dago. Eta bakoitzak bere ezagutzak, iritziak, tradizioak, proiektuak eta helburuak ditu. Hori aniztasuna da. Horrelako gizarte batean, gatazka ere berezkoa eta naturala da: talde horiek zilegi diren helburu ezberdinak dituzte eta, zentzu batzuetan, modu batean edo bestean, proiektu ezberdin horien artean gatazkak sor daitezke. Garrantzitsua da azpimarratzea gatazka horiek ez dutela zertan biolentoak izan. Horregatik, ikuspegi erlazionalak gogo onez onartzen du erlazio guztiak gatazkatsuak direla (edo izan daitezkeela) eta, ondorioz, gizartearen naturalki gatazkatsua dela.

Testuinguru horretan, ikuspegi esentzialistak defendatzen du talde (proiektu, helburu) bakar batek duela arrazoiak: gizakiaren esentzia zein den benetan dakienak. Eta, beraz, besteen proiektuak edo/eta helburuak horretara egokitu behar direla. Hau da, gatazka desagerrarazi behar dela. Perspektiba erlazionalak, aldiz, gatazka natural horiek kudeatu behar direla dio, haien arteko bizikidetzak baketsu, egonkor eta orekatua lortu ahal izateko. Hau da, gatazka ez da desagerrarazi behar (ezinezkoa baita, gizartearen berezko izaera delako), baizik eta ondo kudeatu, gatazka zapalkuntza eta indarkeria bihurtu ez dadin. Pluraltasun, aniztasun eta gatazkarenganako jarrera horrek boterea eta politika ulertzeko modu ezberdina dakar, hurrengo azpiatalean azaltzen dena.

1 <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>

2 <https://www.ehu.eus/es/web/mho-unesco-katedra/garapen-iraunkorrerako-18.-helburua>

4.3. Boterea eta politika

Gorago aipatu bezala (3.3 azpiatalean), perspektiba esentzialista talde boteredun eta egitura hegemonikoen oinarri izan da eta haien zilegitasuna sendotzeko erabili ohi da. Ildo horretan, garrantzitsua da kontuan izatea esentzialismoak boterea ulertzeko forma propioa garatu duela: (balizko) esentziaren ezagutzak boterea ematen du, esentzia hori gauzatzeko baliogarri diren erakunde eta egitura aproposak sortzeko beharrezkoa baita ezagutza hori. Horrek arazo politikoen teknifikazioa dakar, gorago aipatu bezala.

Perspektiba erlazionalak boterearen kudeaketa (politika) beste modu batean ulertzen du. Esan bezala, ontologia erlazionalak kontingentzia eta aniztasuna jartzen ditu gizartearen oinarri gisa. Agertoki horretan, neutroak eta guztientzat positiboak diren neurri teknikoentzat lekurik ez dago. Gizartea talde askoz osatuta dagoen heinean, edozein erabakik batzuen onerako eta beste batzuen kalterako izango dela asumitzen du perspektiba erlazionalak. Ez dago garapenaren diskurtsoetan hain zabaldua dauden "win-win" erabakirik (non alde guztiek onurak jasotzen dituzten, erabaki baten bidez). Aldiz, politikak *erabakiak hartzeko ardura* dakar: gizartea eraldatzeak (hau da, gizarte jakin bati forma ematen dioten erlazioak eta egiturak aldatzea) oreka ezberdin bat sortuko du eta, kasu gehienetan, onuradunak eta kaltetuak egongo dira. Edozein erabaki politikok jarrera hartzea exijitzen du. Horrela, esan bezala, gizarte-arazoen teknifikazioak ez dauka lekurik eta erabaki zailei aurre egitera behartuta gaude.

Horrek ondorio bat dauka: boterea erlazioetan dagoenez (egoera jakin bati forma ematen dioten erlazioetan, hain zuzen ere), edozein eraldaketa-plan, estrategia edo politika erlazioetan zentratu behar da, eta ez balizko esentzia batean gauzatzean. Gizartea aldatzeak gizartean parte hartzen duten eragileen arteko erlazioak aldatzea exijitzen du. Horrela, politikaren zentzua ez da giza esentzia garatzen lagunduko duten balizko erakundeak (objektiboak eta esentzialak omen direnak) *aurkitzea*, baizik eta ezberdinen arteko oinarriak *eraikitzea* (gatazkak konpontzeko akordio kontingenteak lantzea), elkarbizitza baketsua bermatuko dutenak. Akordio horiek kontingenteak direnez, etengabe zaindu, modu malguan kudeatu eta beharrezkoa denean aldatu beharko dira. Perspektiba erlazionalak ez du behin betiko jomuga idealik proposatzen. Aldiz, politika etengabe egiten den bidea dela dio, inoiz amaitzen ez dena.

Laburbilduz, perspektiba erlazionalak gizarte eraldaketa ulertzeko hainbat gako proposatzen ditu:

1. Gizaki izateko modu asko daude eta edozein gizarte modernotan gizakia ulertzeko modu ezberdina duten talde asko bizi dira elkarrekin (aniztasuna).
2. Horregatik, gizartearen oinarria konplexua eta kontingentea da.
3. Ezaugarri horiek gizartea naturalki gatazkatsua izatea eragiten dute (ez derrigorrez biolentzia edota zapaltzailea).
4. Politikaren helburua ezberdinen arteko bizikidetzaren ahalbidetzea da eta helburu hori ezin da modu neutral eta teknikoan erdietsi.
5. Politikara kondenatuta gaude, hau da, etengabe oreka, bizikidetzaren eta egonkortasuna bermatzen ez diren erlazioak eta egiturak eraikitzen behartuta gaude.

Gauzak horrela, pentsagarri eta egingarri al da ontologia erlazional batean oinarritzen den 2030 Agendaren moduko proiektu global bat? Zenbaki honen azkenengo hausnarketa galdera garrantzitsu horri buruzkoa izango da.

5. Posible al da agenda global erlazional bat diseinatzea?

Bai, pentsa daiteke horretaz, baina ez dirudi egingarria denik epe labur edo ertainean. Honelako ezaugarriak izan beharko lituzke halako proiektu batek:

- Ez litzateke, 2030 Agendaren moduan, helburu zehatzetan zentratutako proiektua. Ostera, proiektuak gatazken inguruko akordioak lortzeko esparruak sortu eta denboran mantendu beharko lituzke. Hau da, debaterako eta akordiorako mahaia sortu beharko lituzke, non eragileek beren arteko gatazken inguruko arazoak lantzeko aukera izango luketen.
- Ez litzateke, 2030 Agendaren moduan, aurretik erabakitako epe baterako izango. Ostera, proiektua zabalik mantendu beharko litzateke denboran zehar.
- Ez litzateke, 2030 Agendaren moduan, proiektu aldaezina izango. Alderantziz, gizarteari forma ematen dioten erlazioak aldakorrak eta kontingenteak direnez, proiektuak malgua izan beharko luke, egoera askotara moldatu ahal izateko.

Argudiatu daiteke horixe egiten duela NBEk gaur egun, 2030 Agendatik aparte. Neurri batean, onar daiteke gorago aipatutako ezaugarrien antzerakoak dituzten esparruak zabaltzen dituela NBEk noizean behin. Hala ere, azpian azaltzen den moduan, NBEren oinarriak hain dira esentzialistak, esparru horietako jarduerak ere esentzialisismoaren murrizketak erreproduzitzen baitituzte.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea horrelako proiektu bat oso erabilgarria izango litzatekeela sortzen ari den polo anitzeko munduan. Mende askotan zehar, nazioarteko boterea (ekonomikoa, politikoa, militarra, finantzarioa, kulturala, teknologikoa, etab.) gutxi batzuen esku egon da. Etorkizunean, ordea, botere hori sakabanatuago egongo dela ematen du: bai geografikoki (herrialde gehiagok izango dute zeresana nazioarteko gaietan) zein tematikoki (batzuek finantzak kontrolatuko dituzte, beste batzuek teknologia, beste batzuek botere militarra, etab.). Horrelako testuinguru batean, perspektiba esentzialista batek gatazkek enkistatzen ditu eta, ondorioz, indarkeria eta zapalkuntza dira haien azken emaitza. Perspektiba erlazional bat, aldiz, gatazka horiek sortu dituzten erlazioen kudeaketan zentratuko litzateke, arazo horien konplexutasunak eskatzen duen malgutasunarekin.

Orduan, itxuraz hainbat arazo modu hobe batean konpontzeko gaitasuna badu, zergatik ez da egingarria proiektu hau? Oro har, hiru arazo mota bereiz daitezke, nahiz eta hirurak nolabait lotuta egon:

- Lehena tradizioa da. Gorago esan bezala, perspektiba esentzialista mendebaldeko tradizioen sustrai sakonenetan dago. Gure kulturari, behintzat, Grezian hartu zuen forma orain dela 25 mende, eta, garaiz garai (Erroma, Erdi Aro kristaua eta Aro Modernoa) gugana heldu da. Zergatik da hori arazo bat? Hain sakonki sustraituta dauden horrelako elementu kultural eta filosofikoek inertzia oso handia dutelako eta, ondorioz, aldaketak oso zailak direlako. Gizakia, gizartea, historia, erakunde politiko eta ekonomikoa ulertzeko gure modua, neurri handi batean, esentzialista da. Gorago aipatu bezala, hain da perspektiba horren eragina handia guran, ezen esentzialisismoa eta sen ona identifikatzeko ohitura baitugu. Horregatik da hain zaila esentzialistak ez diren proposamenak sortzea eta proiektuak aurrera ateratzea: bidea hasi baino lehen ere, hausnartu gabeko aurreiritziez osatutako arazo eta oztopoak agertzen direlako.
- Bigarrena NBE bera da. Munduko arazo eta gatazka garrantzitsuenak konpondu ahal izateko, beharrezkoa da herrialde guztien arteko erlazioak erraztu ditzakeen erakunde globala. Gaur egun lan hori NBEk egiten du. Baina, aurreko puntuan azaldukoaren ondorioz, NBEren oinarriak oso esentzialistak dira. NBEren oinarrian dauden dokumentuetan edo NBEk bere historian zehar kaleratutako txosten garrantzitsuenetan nabaria da ontologia esentzialistaren eragina. Adibidez, testu horiek guztiek Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala bere egiten dutela esplizituki aipatzen dute sistematikoki. Eta aldarrikapen horren azterketa ontologikoa batek argi erakusten du

dokumentu hori zeharo esentzialista dela eta gizakien perspektiba esentzialista batean oinarrituta dagoela. Horrela, gizakiaren ikuspegi esentzialista NBEren dokumentu guztietara zabaltzen da. 3.1 azpiatalean azaldu bezala, hori da garapenarekin lotuta dauden NBEren estrategia, plan eta politiken kasua. Zaila da, beraz, NBEren bitartez esentzialistak ez diren proiektuak bultzatzea, zeren eta erakunde horren zilegitasuna argumentu esentzialisten gainean eraikia dago. Logika ez-esentzialistek horrela sortutako zilegitasuna zalantzan jartzen dutenez, logika horiek ez dute erakunde horretan bide luzea egiterik.

- Azkenik, boterearen arazoa dago. Gorago aipatu den moduan, mendebaldean behintzat, boterea modu esentzialista batean ulertu ohi da: badago esentzia unibertsal bat, eta, beraz, badago ezagutza unibertsal bat eta ezagutza hori dutenek boterea izan behar dute. Aurreko puntuan aipatu den moduan, perspektiba ez-esentzialistek zalantzan jartzen dute horrela ulertzen den boterearen zilegitasuna. Horregatik, boterea duten edo boterea kudeatzen duten egiturek perspektiba ez-esentzialistak zuzenean baztertzen dituzte, arriskutsuak direla argudiatuz. Gauzak horrela, proposamen erlazionalak bultzatzea, modu batean edo bestean, boteredunen aurkako borroka da. Eta borroka horiek irabaztea oso zaila izaten da, are gehiago botere gutxi duen leku batetik egiten badira (dagoeneko irakurtzen ia bukatu duzun ale honetatik, kasu).

Gauzak horrela, ez dirudi mundu mailan perspektiba erlazionalen bidea jorratzeko aukera izango dugunik epe labur eta ertainean.

6. Bibliografía

- ARRIETA, Agustin & Ibon URIBARRI (2008) *Filosofiaren Historia*, Elkar, Donostia.
- COPLESTON, Frederick (2011) *Historia de la Filosofía*, Ariel, Madrid.
- ESTEVA, Gustavo (2010) "Development", hemen: Sach, W. (2010) *The Development Dictionary. A Guide to Knowledge as Power*, Zed Books, New York, 1-23.
- ESCOBAR, Arturo (1996) *Encountering development. The Making and Unmaking of the Third World*, Princeton University Press, New Jersey.
- FERRATER, José (2009) *Diccionario de Filosofía*, Ariel, Madrid.
- KENNY, Anthony (2010) *A new history of Western Philosophy*, Oxford University press, Oxford.
- Nazio Batuen Erakundea (2015) *Garapen jasangarrirako 2030 Agenda*, UNESCO Etxea, Bilbo.
- REALE, Giovanni & Dario ANTISERI (2001) *Historia del Pensamiento Filosófico y Científico*, Herder, Barcelona.
- SACH, Wolfgang (2010) *The Development Dictionary. A Guide to Knowledge as Power*, Zed Books, New York.
- TELLERIA, Juan (2018) Can we 'transform our world' without affecting international power relations? A political analysis of the United Nations development agenda, *Globalizations*, 15 (5), 655-669.
- TELLERIA, Juan (2022) The fantasmatic narrative of 'sustainable development'. A political analysis of the 2030 Global Development Agenda, *Environment and Planning C: Politics and Space*, 40 (1), 241-259.
- UNDP (1990) *Human Development Report 1990*, United Nations Development Programme, New York.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.

16. Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak. Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren eraketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Análisi Ekonomikoko Saila, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desperekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertzeo gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurratzaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomenoak. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKiko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itzaropenaren alde borrokatzeo erronka. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.
30. Munduko ekonomiaren erronka demografikoak. Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

- 31. Zaintza eta zahartzaroa: XXI. mendeko erronkak.** Matxalen Legarreta-Iza. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Uzuri Castelo Moñux. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Alaitz Uriarte Goikoetxea. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Maider Barañano Uribarri. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Marina Sagastizabal Emilio-Yus. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 32. Ekofeminismoak. Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea.** Amaia Pérez Orozco. Colectiva XXK. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza.
- 33. Sexu eta genero aniztasuna aztertzeo gakoak.** Aimar Rubio Llona. Hegoako Kolaboratzailea, UPV/EHU.
- 34. Zientzia eta feminismoak: zientziari bizitzaren iraunkortasunetik begiratzen.** Vane Calero Blanco. Sorkin, alboratorio de saberes / jakintzen iraultegia.
- 35. Garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak. 2030 Agendaren inguruko gogoeta filosofikoa.** Juan Telleria. Filosofia Saila, PRAXIS ikerketa taldea eta Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

